

Eibarko Udalak programazioan inguruko tailer teknologikoa antolatu du zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgiltzeko.

Tramitatzailea: Haurreria eta Gazteria.

Hartzaileak: LH 3.tik 6. bitarteko mailakoentzat.

Ikastaroaren prezioa:

- 20€ (Eibarren erroldatuak).
- 40€ (Eibartik kanpokoak).

Ikastaroaren ordainketa: Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

Aurrematrikula egiteko tokia:

<https://www.eibar.eus/robotika>

Aurrematrikula egiteko epea: urriaren 2tik 12ra.

Nork emango du: DOPLAY.

Non: Jazinto Olabeko Ludotekan.

Datak: urriaren 17, 24, 31 eta azaroak 7.

Ordutegiak:

- Minecraft: LH 3 - 6: 10:00etatik 11:30etara.
- Roblox: LH 3 - 6: 12:00atik 13:30etara.
- Minecraft: LH 3 - 6: 16:00tik 17:30etara.
- Roblox: LH 3 - 6: 18:00tik 19:30etara.

Ikasle kopurua: gutxienez 5 ikasle ikastaroa burutzeko eta gehienez 10 ikasle.

Ikastaroaren hizkuntza: euskaraz.

Adierazitako aurrematrikula epearen barruan <https://www.eibar.eus/robotika> webgunean aurrematrikula egin beharko da. Aurrematrikula egiteko epea amaitzerakoan behin-behineko zerrendak lortuko dira eta taldeen kudeaketa burutuko da.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), **urriaren 14an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **urriaren 14an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus), egongo da **urriaren 14an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Behin betiko zerrendan dauden partehartzaileak **“IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA. ROBOTIKA 2020-01”** izeneko inprimakia behar bezala bete beharko dute (PEGORAn, udal web orrian, <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/ikastaroak-lehiaketak-sariketak> eta ikastaroa burutuko den tokian eskuragarri) eta **robotikako lehenengo ikastaro egunean irakasleari entregatu**.

Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan.